

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Kraftwerk taldearen zortzi kontzertu hartuko ditu Guggenheim Bilbao Museoa

2016ko urriaren 7tik 14ra bitartean, Kraftwerk taldeak *The Catalogue – 1 2 3 4 5 6 7 8* aurkeztuko du Museoko Atrioan; emanaldi horiek kronologikoki eta hiru dimentsiotan birpasatzen dute Alemaniako talde handiaren ibilbide osoa

Sarrerak salgai izango dira otsailaren 9an

Guggenheim Bilbao Museoa Kraftwerk talde alemaniarren zortzi kontzertu hartuko ditu 2016ko urriaren 7tik 14ra bitartean; horrela emango zaie hasiera Museoaren 20. urteurrenaren ospakizunei. Musika elektronikoaren aitzindari den talde horrek *The Catalogue – 1 2 3 4 5 6 7 8* aurkeztuko du elkarren segidako zortzi gauetan. Emanaldi horiek taldearen soinua eta ikusizko esperimentazioak aztertuko dituzte, ordena kronologikoan eta hiru dimentsioko ikusizko efektuak baliatuz.

Kontzertuak

Kraftwerken zuzeneko kontzertuak ikus-entzunezko emanaldien, soinua digital garbi-garbiaren eta hiru dimentsiotako proiektzioen sinkronizazio bikaina dira. Soinua eta irudia uztartzen dituzten kontzertu horiek taldearen lau hamarkadetako ibilbidea eta tarte horretan egindako berrikuntza musikal eta teknologikoak agerian ipiniko dituzte; gainera, bat-bateko emanaldiak, hiru dimentsiotako proiektzioak eta multimedia-animazioak barne hartuko dituzte. Gauero, argitaratutako ordenan aztertuko dituzte orain arteko diskoak; lehenengoaren izenburua *Autobahn* da. Horrez gain, beste konposizio batzuk ere joko dituzte. Hona hemen kontzertuen eta diskoen ordena:

Autobahn (1974) – urriak 7

Radio-Activity (1975) – urriak 8

Trans Europe Express (1977) – urriak 9

The Man-Machine (1978) – urriak 10

Computer World (1981) – urriak 11

Techno Pop (1986) – urriak 12

The Mix (1991) – urriak 13

Tour de France (2003) – urriak 14

Sarrerak

Otsailaren 9an hasita, goizeko 10etatik aurrera, izango dira salgai: doctormusic.com eta ticketmaster.es webgunean, Fnac dendan, Viajes Carrefour-en, Halcón Viajes-en eta Ticketmaster sarearen beste salmenta-leku batzuetan, bai eta 902 15 00 25 telefonoan. Prezioa 70 eurokoa izango da (ez daude barne banaketa-gastuak). Gehienez lau sarrera erosi ahalko dira lagun bakoitzeko. Kraftwerk taldeak eskatu du erosle bakoitzak kontzertu bakar baterako sarrerak baino ez erosteko aukera izan dezan.

GUGGENHEIM BILBAO

Horrez gain, sarreretan eroslearen NAN zenbakia azalduko da, eta pertsona hori bertaratu behar izango da bera eta lagunak kontzertura sar daitezzen.

Taldea

Kraftwerk musika elektronikoaren aitzindari izan ziren eta askotariko musika-generoetan eragina izan dute, besteak beste, elektroan, hip hopean eta teknoan. Mundu osoan ezagunak dira eta lau hamarkadetako ibilbidea dute; gaur egun, Kraftwerk XXI. mendeko soinu-banda digitalaren egiletzat jotzen dira.

Espanian *Kraftwerk 3-D – The Catalogue 1 2 3 4 5 6 7 8* Doctor Music-ek eta Get In-ek ekoitzi dute, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan.

www.kraftwerk.com

Informazio gehiagorako, mesedez, klikatu [hemen](#).

Bilbon, 2016ko urtarrilaren 27an